

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO ITSASADARRAREN ITSAS MUSEOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 1996-2009

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, Bilboko Itsasadarraren Itsas Museoa Fundazioaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren gaineko fiskalizazio txostena mamitu du, 1996-2009ko aldiari dagokiona. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta Fundazioaren kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, Fundazioak ez du 2003-2009 aldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko araudia bete eta iritzi hau txostenean bertan hainbat aipamen eta ez-betetzeen bidez euskarritzen du.

Honela, bada, HKEEk adierazten du Fundazioen Erregistroan ez direla patroien izendapen eta kargu-uzte guztiak jaso, ez eta horiei aitortutako ahalak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeak agintzen duen legez.

Langileen atalari dagokionez, Fundazioak ez dituela 2003az geroztik gauzatutako langileen 14 alten kontratazioan publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete; gainera, Koordinatzaile Orokorrari 2004ko uztaillean Patronatuak izendatu zuenetik 2008ko apirilera arte ordaindutako ordainsaria, Bilboko Udaletik zerbitzu eginkizunetan dagoena, ez zuen aipatutako Atalak onetsi, estatutuek agintzen duten moduan.

Kontratazioaren fiskalizazioan ondasun eta zerbitzuak erostean, 1.898 mila euroko zenbatekodunak, publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu. Bestalde, kafetegiaren ustiapena zuzenean esleitu da, aipatutako printzipioak gorde gabe.

Halaber, Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan 1996-2009 aldiko jarduera ekonomikoaren alderdi esanguratsu guztiak erakusten dituztela, finantza egoera eta eragiketen emaitzak, txostenean bertan zehaztu diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Kudeaketari dagokion atalean, jasotako diru-laguntzen kontabilitate, erregistro eta kontrolari eta fundazioa den aldetik legezko obligazioak betetzeari buruzko hainbat irizpen alde batera utzita, zera adierazi da: ez patroiek finantzaketarako 2009ko abenduaren 31n hartutako konpromisoek, ez ekonomia-finantza egoerak, ez dutela epe ertainera museoaren funtzionamendua bermatzen; honenbestez, komenigarria litzatekeela Fundazioan esku hartzen duten pertsona juridiko publikoek museoa kudeatzeko bestelako molde juridiko egokiagorik dagoen aztertzea eta Fundazioaren bideragarritasuna bermatzeko beharrezko diren baliabideez hornitzeko beharra begiratzea.